

Herririk Herri |3|

Merkataritzan euskara bultzatzeko kanpaina jarri dute martxan Elorrión

Kultura |11|

Udazken eta neguan zehar jokatu da 2010eko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa



Berbaz |8|

Miriam Ocio: "Maitasuna zaintzan oinarritu behar da, ez kontrolean"



Herritar asko bildu zituen eguaztenean sokamuturrak Durangon, San Fausto egunean urtero gertatzen den lege. Kepa Aginako

Sokamuturra zaintzeko neurriak zorrotzuko dituzte

> Gaizki-ulertua tarteko, zigorra jaso zezakeela esan zuen Durangoko Udalak prentsaurrekoan

> Jaurlaritzaren esanetan ez diete ezelango arau-hausterik jakinarazi

2

Profesionaletakoa izan zitekeen zesta finala domekan

KIROLAK • Etzi goizean San Fausto Zesta Txapelketako finala jokatu dute Andoainek eta Mutrikuk. Finalera heldu direnetako bi Ameriketako profesional ibilitakoak direnez, goi mailako ikuskizuna eskaintzeko osagai guztiak daude. Bestalde, asteburuan Nazioarteko II. Trinkete Txapelketako finalak jokatu dituzte. Gomazko paletan Itsaso Pradera mallabitarra ibiliko da. **16**

• Berriz

Gaztelekua berriro ere martxan Txabilipurdi elkartegaz **6**

• Atxondo

Etxe sozialen zozketarako deialdia azaroan egingo dute **3**

• Iurreta

Diru-laguntzak gazteei alokairua ordaintzea errazteko **7**

• Mallabia

Kirol taldeak babestuko dituzte Hierros Servandok eta udalak **4**

Pinturas Sagasta Pinturak

Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944 - IBAI URIEN

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Sokamuturra zaintzeko neurriak hobetuko dituzte

Gaizki-ulertua izan da Udalaren eta Jaurlaritzaren artean 16 urtetik beherakoen partaidetzaren inguruan

Prentsaurrekoa eman zuen atzo Durangoko Udalak eguazteneko *Zezenak dira* ekitaldiaren inguruan. Natxo Martinez Jai Batzordeko arduradunak adierazi zuenez, eguazteneko sokamuturrean Ertzaintzak 16 urtetik beherako gazteen partehartzea izan zela berbaz jakinarazi zion eta horren berri emango zuela Jaurlaritzan ohartarazi.

Barne Sailak Anboto astekariari baieztatu dionez, ez dute ezelango jakinarazpenik jaso idatziz sokamuturreko aktan, ez beste edozein bidetatik. Beraz, nahasmena argituz ez dutela ezelango neurririk hartzeko asmorik azaldu dute. Martinez "pozik" agertu da jakinarazpenik egin ez dutelako eta udalak ez duelako zigorrik jasoko.

Hala ere, Jai Batzordeak 16 urtetik beherakoek ikuskizunean parte hartu zutela onartu du eta etorkizunean neurriak hartzeko

Herrizaingo Sailak ez duela ezelango jakinarazpenik jaso azaldu dio Anboto astekariari

lanean hasi dira. Atzo goizean Durangoko alkate Aitziber Irigoras udaltzaingoaren buruagaz batzartu zen, zaintza prozedura zelan hobetu daitekeen aztertzeko. Jai Batzordeak ere gai hori aztertuko duela aurreratu ondoren, gazteen gurasoei erantzukizunez jokatzeko eskatu die Martinezek, horrelako arau hauste batek ekarri ditzakeen ondorioez ohartaraziz. Durango zezenak tar-

Aitziber Irigoras alkatea udaltzaingoaren buruagaz batzartu da zaintza neurriak zelan hobetu aztertzeko

teko dituen ikuskizunak antolatzen jarraitzen duen Bizkaiko herri bakarrenetakoa da. Bizkaiko "hainbat herritan horrelako ekimenak bertan behera geratu badira, segurtasun neurriak bete ez dituztelako izan da".

Zigor posibleak

Dena dela, atzoko prentsaurrekoan udalak arau-hauste baten aurrean jaso ditzakeen zigorren



Herritar askok parte hartzen du urtero 'Zezenak dira' ekimenean. Kepa Aginako

berri eman zuen. Durangon gertatu zen lako arau-haustea "larritzat" sailkatu zitekeela uste du udalak. Beraz, prozedimendu bat zabaldu izan balitz, 1.200 eurotik 30.000 eurora arteko isuna ezarri

Gurasoei erantzukizunez jokatzeko esan diete horrelako arau-hausteen ondorioez ohartaraziz

ziezaiokeen Jaurlaritzak udalari. Gainera, legearen arabera, aldi baterako debekua ere ezarri dezakete sei hilabetetik hasi eta hainbat urterainokoa Herrizaingo Sailak horrela erabakiz gero. ■ J.D.

Egitarauko ekitaldiek aurrera darraite Durangoko jaietan

Violadores del Verso taldeak kontzertua eskainiko du gaur Landako Gunean



Udal ordezkariek eta Jon Sarobe pregoilariak artopilak banatu zituzten, eguaztenean, Udaletxean.

Jaietako bigarren asteburua ekitaldiz beteta dator Durangon. Bertso saioan batuko dira gaur, 22:30ean, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Miren Amuriza eta Julio Soto, San Agustin Kultur Gunean. Musika emanaldia Landako Gunean izango da entzungai: Rhequiem, Antfodo eta Violadores del Verso taldeek 23:00etan eskainiko dute zuzeneko. Txosnagunean, Atom Rhumba eta DJ Makala izango dira.

Bertso saioa gaur: Lujanbio, Arzallus, Amuriza eta Soto San Agustin kultur gunean

Anari eta Sorkunek kontzertua eskainiko dute domekan txosnagunean

Diana txistulariekin eta Zezenak dira dultzaineroekin, zapa-tuan eta domekan izango dira. Txistularien kalejira eta gero, 11:00etan, Nekazaritza Azoka prestatuko dute zapa-tuan Merkatu Pla-

zaren inguruan. Afrikako erritmoak 13:00etan M Lomp taldeak eskainiko ditu, Udaletxeko plazatik. Haurren moztako kalejira eta sari banaketa Andra Marian izango dira. Pailazoak, tortilla txapelketa, antzerkia, ume eta nagusientzako jolasak, ludoteka eta beste ekitaldi ugari antolatuko dituzte. Abba klonikoak, Ezkurdin Fabulosa orkestra eta Powerade eta Doctor Deseo taldeak Landako Gunean izango dira. Txosnetan, Amnistia-aren Aldeko Egunean, besteak beste, moztako lehiaketa eta Luhartzen kontzertua prestatuko dituzte.

Domekan, berriz, Ingurugiro Eguna antolatuko dute. Elkartasun jokoak atonduko dituzte Pobreziaren Nazioarteko Eguna delata, Ezkurdin. Anari eta Sorkunek kontzertua emango dute, 19:00etan, txosnagunean. Jaien amaieran kalejiran irtengo dute Udaletxe plazatik Landakora Biznietos de Celedon fanfarreak eta Kilimixka hankapaluek. ■ J.G.

> Bideoa ikusgai
www.anboto.org-en



ELORRIO

Merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina

68 komertzio, taberna eta zerbitzu enpresatan euskaraz jardunda, opariak lortu daitezke

Merkataritzan euskararen erabilera handitzeko *Geurien euskaraz, jakina!* izeneko kanpaina martxan jarri du Elorrioko Udalak Elhuyar Aholkularitzagaz batera. Kanpaina horren bitartez, sariak irabazteko aukera izango dute Elorrion erosketak

Elhuyar Aholkularitzak eta udalak abiatu dute 'Geurien euskaraz, jakina!' kanpaina

euskaraz egiten dituztenek. Kanpaina urriaren 4an hasi zuten, eta azaroaren 14an amaituko da.

Elorrioko komertzioetan euskaraz eskatzen duen bezeroari txartel bat emango diote, bertan, bere datuak idatzi ditzan. Ondoren, txartela komertzioan topatu

ko duen kutxatxo batean sartu eta, horrela, erosleak abenduaren 3an, Euskararen Egunean, egingo duten zozketan parte hartuko du.

Merkatarien aldetik jasotako erantzuna "oso ona" izan dela adierazi dute Elhuyar Aholkularitzako kideek. Izan ere, herriko 37 komertzio, 15 tabernak eta jate-txek, eta 16 zerbitzu-enpresak parte hartuko dute proiektu honetan (68, guztira). Gainera, merkataritza bakoitzak emandako produktuekin osatuko dituzte ondoren zozketatuko diren saskiak.

Merkatariek eskainitako opariarten artean, denetarik aurkitu daiteke: gaua eta gosaria herriko nekazal turismo batean, bazkariak zentral tabernatan, edariak, kontserbak, motxilak... Gauza bitxiak ere oparitu dituzte; esate baterako, arropa lisatzen ikas-



Euskaraz eskatzen duen erosleak bere datuekin betetako txartela saskian sartu beharko du.

teko edo ile mozketen inguruko ikastaroak, besteak beste. Sari-banaketa abenduaren 3an izango da, Euskararen Egunean, Elorrioko Udaletxean. Hainbat urte dira Elorrioko Udalak Geurien egitas-

Produktu otzarak eta nekazal turismoan egonaldia irabazi daiteke, esaterako

moa martxan ipini zuela, herriko arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko helburuagaz. Egitasmo horren testuinguruan kokatuta dago *Geurien euskaraz, jakina!* sentsibilizazio-kanpaina. ■ J.D.

ATXONDO



Irailan hasi ziren apartamentuak atontzeko lanak

Etxe sozialen zozketarako deialdia azaroan egingo dute

Gabonak orduko egingo dute Arrazolan alokairuko etxebizitza sozialen zozketa. Dagoeneko badabilza apartamentuak atontzen, eta azaroan izena emateko bete beharreko baldintzak jasotzen dituen ordenantza kaleratuko du Atxondoko Udalak.

Joan zen barikuan Arrazola-ko liburutegira 25 herritar inguru gerturatu ziren, proiektuaren berri jasotzeko herri-batzarrerara. Bertan egindako ekarpenekin aurkeztutako proposamena garatzen dabil orain udala, eta ordenantza aste biren buruan argitara aterako duela aurreratu du asteon Atxondoko alkate David Cobosek.

Gutxienez 120 farola aldatuko ditu udalak

Argiteria aldatzeko beharren baldintzak jainaraziko dituzte datorren astean, Gabonak aurretik hasteko

Gabonak orduko kaleko argiteria aldatzen hasteko asmoa dauka Atxondoko Udalak. Gaur egun dauden bonbilen lekuan kontsumo txikiko sistema ipiniko dute. Aurtengo inbertsioen aurreikuspenen barruan daude lan horiek; aurrekontuetan 120.000 euroko diru-zatia gorde dute behar horiek gauzatzeko.

Atxondon, guztira, 400 farola inguru daude, baina aldaketak ez die guztiei eragingo; gutxienez 120 farola eta gehienez 240 aldatzeko asmoa daukela azaldu du David Cobos Atxondoko alkateak.

Aldaketa gehienak Apatan egingo dituzte, izan ere, bertan dago argiteria zaharrena eta watio gehien kontsumitzen duena. Axpeko eta Arrazolako argiteria berriagoa da. Farolak aldatzeko beharren baldintzak zeintzuk diren datorren astean jakinaraziko du Atxondoko Udalak.

Apatan aldatuko dituzte farola gehien; zaharragoak dira eta watio gehiago darabilte

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

A. Uireta

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología
Ainara Uireta Jainaga
PODOLOGIA 198. EKARGOKIDEA

▣ MALLABIA

Kirol taldeak babestu guran, hitzarmena Servandok eta udalak

24.000 euroko diru-laguntza emango du Hierros Servando enpresak herriko kirol taldeentzako

Herriko kirol taldeak bultzatu guran, Hierros Servando enpresak eta Mallabiko Udalak urriaren 4an hitzarmena sinatu zuten. Akordioaren onuradunak Mallabiko herriaz gainera, Mallabiko Pilota Eskola eta Mallabiko Futbito Kirol Taldea direla jakitera eman du Aitor Loiola alkateak.

Mallabiko pilota eskolak eta futbito taldeak jasoko dute diru-laguntza

Hitzarmenak dioenez, Hierros Servando enpresak lau urtean 24.000 euroko diru-laguntza emango die bi taldeei; hau da, urtean talde bakoitzak 3.000 euro jasoko ditu. Hierros Servandok hein batean edo osorik finantzatutako jardueretan ageri-agerian jarriko

dute enpresaren izena. Urte amaieran, bi aldeak bildu egingo dira urteko ekintzen balorazioa egin eta hitzarmena aztertzeko.

Udalaren berbetan, Mallabian errotutako enpresa honetan herriko hainbat lagunek lan egiteaz gainera, "ezaguna da azken urteetan gure inguruan metalaren berreskurapen, birziklapen eta kudeaketaren inguruan egiten duen lanagatik". Gaineratu dutenez, "enpresa honek konpromiso argia hartu gura du Mallabiko herritarren ongizateagaz eta garapenagaz, batik bat kultur eta kirol garapenagaz".

Futbito taldea kategoriazigo da hiru urteetan jarraian. Gaur egun, Euskal Ligan parte hartzen du. Mallabiko Pilota Eskolan bi aldiz munduko txapeldun izan den Itsaso Praderak jokatzeko, eta iaz Bizkaia eta Euskal Herri mailan lorpen garrantzitsuak izan zituzten. ■ J.G.



Hierros Servando eta Mallabiko Udaleko ordezkariak hitzarmena sinatzeko bildu ziren.

▣ OTXANDIO

Korrikako produktuak salduko dituzte etzi plazan

Etzi eguerdian datorren urteko Korrikako produktuak erosi ahalko dira herriko plazan



Joan zen urteko 16. Korrika Otxandiotik ere igaro zen.

Urte birik behin euskararen alde egiten den Korrika ekimena hasi da dagoeneko motorrak berotzen. Euskal Herriko herriak tipi-tapa zeharkatzen dituen ekimena 2011n izango bada ere, Otxandion Korrikaren inguruko materiala erosteko modua egongo da domekan.

Hain zuzen ere, Euskara Batzordetik jakinarazi dutenez, domeka honetan udaletxe aurreko plazan standa ipiniko dute. Postu horretan Korrikak ateratzen dituen arropak (kamisetak eta abar) eta bestelako materiala erosteko aukera egongo da. Eguerdian zabalduko dute: 12:30etik 14:30era, hain zuzen ere.

12:30etik 14:30era egongo da plazako standean produktuak erosteko aukera

Erreka garbitzen

Bestalde, zapatu goizean Erreka Eguna antolatu du Otxandio Gaste Asanbladak. 09:00etan ipini dute hitzordua herriko plazan. Goizean zehar, Otxandio zeharkatzen duen errekan aurkitutako zikinkeria garbitzen jardungo dute eta ondoren, 11:00 inguruan, hamaiketako egingo dute herriko Gaztetxean. ■ J.D.

▣ MAÑARIA

'Mitoak eta legendak bidean' ibilaldia zapatu goizean

Gerediaga eta Urkiola Landa Garapena elkarteek antolatu eta Bizkaiko Aldundiak babesten duen Ondarearen Europako Jardunaldiaren bateginda antolatutako lehenengo bisita gidatua egin zuten, joan zen domekan, herriko plazatik abiatuta.

Mitoak eta legendak bidean izena daraman bisita gidatua egiteko aukera bigarren ezskainiko dute, urriaren 16an, 11:00etan plazatik irtenda. Herriko mendi, kobazulo eta baselizen inguruan ibili eta ibilbidean zehar Durungaldeko antzinako sinesmen, erlijio eta legendak ezagutzea da bisita gidatua proposatuko dutena.

Bizkaiko zaharrenetarikoa den organu barrokoa jotzera, berriz, entzute handiko Andres Cea Galán organu-jotzailea etorriko da, urriaren 23an. Amabirjinaren Jasokundearen elizan izango da Ondarearen Europako Jardunaldien hitzordu nagusia den kontzertua. ■ I.E.

▣ IZURTZA

Babeseko etxebizitzak eraikitzeko, birkalifikazioa

Gazte lokalaren pareko 1.600 metro koadroko lursailean udalak eraikitzea aurreikusitako duen babeseko etxebizitzak eraiki ahal izateko, lursaila eraikigarri izendatzeko proposamena egingo du udal gobernua urriaren 21eko osoko bilkuran. Aurrez, iaz, lursailaren jabeagaz hitzarmena sinatu zuen udalak, eta gaurko Hirigintza Batzordean proposatu du gobernua lurraren izendapena aldatzea. Udalean behin-behineko onarpena egin ondoren, alegazioetarako epea aurkeztea litzateke hurrengo pausua.

Frontoi ondoko lursailean babes ofizialeko 15 etxebizitza eraikitzea da gobernuaren asmoa. Tramiteen ondoren, etxebizitzak urtebete barru eraikitzen hastea litzateke helburua. ■ I.E.

Frontoi ondoko lursailaren izendapena aldatzeko proposamena udalbatzarrera

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan saltsan.com

gremioen koordinazioa
urutiaga
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi erakusketa, salmenta eta ipintzea
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Hemen agertu gura baduzu
deitu!
94 621 79 02



Hertz Klinika

Ekoden

ZX-27 kristalezko inplanteen sistema iraultzailea



sistema honi esker, ez da ebakuntzarik egin behar, eta protesi finkoa eraman daiteke, hezurrik eduki ez arren

www.hypodent.sk/en/zx_27.html

Arkotxa, 4 - Etxabea • 48200 DURANGO

Tel.: 94 621 78 22

www.clinicaekoden.com

**EZ GARA
FRANKIZIA**

GURE ARDURAPEAN ZAUDE

BERRIZ

Gaztelekua berriro ere martxan, Txatxilipurdigaz

Hilaren 24an egingo dute urriko lehen ekintza; Zarautzera joango dira surf ikastaroa hartzera

Ibilbide berri bati ekin dio Berrizko Gaztelekuak, arduradun berriekin, hain zuzen ere. Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak kudeatu eta dinamizatuko du hemendik aurrera trenbide alboan kokatzen den gunea.

Egitasmoa 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa da, eta hiru hezitzailek osatzen dute lantaldia. Barikueta arratsaldeko 16:30etik 20:30era izango ditu atak zabalik; zapatu eta domeketan, ostera, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:30etik 20:30era.

Surf ikastaroa

Trenbide alboan dagoen etxe honetan –lehenengo kultur etxea izandakoa– eskaintza berezia izango dute, beraz, herriko gaztetxoek. Baina, horretaz gainera, astialdiagaz lotutako beste zenbait ekintzatan par-

te hartzeko ere izango dute aukera. Dagoeneko programatuta daude urriaren burutzeko ekintza batzuk, eta horien artean aipatzekoa da urriaren 24an egingo dutena: surf ikastaroa. Zarautzera joango dira klaseak hartzera, eta, gainera, Gipuzkoako kostaldeko herria ezagutzeko ere aprobetxatuko dute, bide batez. Bestalde, asteburu horretan bertan beste ekintza bi izango dituzte: altxorren bila lehiaketa eta zirku tailerra. Aspertzeko astirikez dute edukiko, beraz.

Gaztelekua 2008an ipini zuen martxan udalak, gaztetxoei asti librean elkarregaz egoteko aukera emateko asmoz. ■ M.O.

Egitasmoa 12 eta 16 urte bitartekoei zuzendutakoa da, eta hiru hezitzailek osatzen dute lan-taldea



2008tik zabalik dago Berrizko Gaztelekua; ibilbide berri bati ekin dio orain.

Elikagai sektorearen berrikuntza eta hobekuntza bilatu guran

Lehen sektoreari begirako jardunaldiak hasi zituzten atzo Berrizen

Berrikuntza jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen Urkiola eta Lea Artibaiko landa garapenerako elkarteek, nekazaritzako elikagai sektorearen hobekuntza bilatzeko asmoz. Bertan, era berritzaile baten produktuei etekina ateratzeko tresnak ikusiko dituzte parte-hartzaile-

Atzo burutu zuten lehenengo saioa, berrikuntza eta sormena lantzea helburu

leek; atzo burutu zuten lehenengo saioa, berrikuntza eta sormena lantzea helburu zutela.

Begin izeneko proiektuaren baitan, “nekazaritzako elikaduraren sektoreko ekoizleei merkaturatu bestelako era batean begiratzen” lagundu gura diete, “joera berriak ikusiz, aukera berriak identifikatuz eta elkarlan berriak sortuz”, diote antolatzaileek. Sektorearen garapena ahalbidetzeko hausnarketa bultzatu gura ei dute.

Sektorearen garapena ahalbidetzeko hausnarketa bultzatu gura dute, oharrean azaldu dutenez

Urria eta azaroa

Atzo hasi ziren jardunaldiak, eta hurrengo saioa hilaren 28rako aurreikusi dute, produktuaren aukera berriak gaitzat hartuz. Gero, azaroaren 11n, irudia eta marka aztertuko dituzte, eta azkenik, azaroaren 25ean, aliantzen eta elkarlanaren gainean hausnartuko dute.

Jardunaldiok Urkiola landa garapenerako elkartearen egoitzan dira –udaletxe zaharrean– eguerdiko 15:00etatik 19:00etara bitartean. Antolatzaileek lehen sektoreko profesionalak bertan parte hartzera gonbidatu dituzte, eurentzako “erabilgarri eta interesgarri” izango direlakoan. ■ M.O.



Atzo burutu zuten lehenengo jardunaldia.

Donejakue bideko etapa berri bat egingo dute asteburuan

Logroño eta Santo Domingo de la Calzada lotzen dituen bidea osatuko dute bihar eta etzi

Berrizko kiroldegitik Donejakue edo Santiago bidea ezagutzeko irteerak antolatu ohi dituzte, eta asteburu honetan izango dute beste txango bat egiteko aukera ibiltariak. Logroñotik Santo Domingo de la Calzadarainoko ibilbidea bi etapatan egingo dute, tartean Nájeratik ere igaroz. Bihar goizeko 08:00etan ekingo diote

bidaiari, eta domeka iluntzerako, 19:00ak bueltarako, itxaroten dute Berrizera bueltatzea.

Autobusean egingo dute joan-etorria, eta, hain zuzen ere, bidaiari, ostaturia eta gosaria sartzen dira prezioan: 63 euro ordaindu dituzte asteburu-pasa hau egitera doazenek. Ostaturia eta gosaria Nájeran izango dituzte. ■ M.O.

Tasak bere horretan mantenduko dituzte

2011rako ordenantza fiskaletan ez da igoerarik egingo, eguazteneko udalbatzarrean adostuta

Eguaztenean ohiko osoko bilkura egin zuten Berrizen, eta proposaturiko gaien artean 2011rako ordenantza fiskalen eta tasen ingurukoa zegoen. Bertan, hainbat moldaketa adostu zituzten, aho batez, baina ordaindu beharrekoari dagokionez, behintzat, ez da igoerarik izango. Jasotako zuzenketa artean, ezkontzak Udaletxean egin ahal izateko erabilera tasa aipatu daiteke. Goizeko 10:00etatik 14:00etara bitartean

doan eskaintzen zuten zerbitzu hori, eta hemendik aurrera ordutegi publiko osora pasatuko da eskaintza. Bestetik, jaietan postuak ipintzeko 60 euro kobratzen zituen udalak argindarragatik, eta neurri hori arautegian sartuko da, udalbatzaren erabakiz.

Tokiko Garapen agentea

Beste puntu batean, INEMi –%55 ordaintzen du– tokiko garapen agentearen kontratu luzapena eskatzea onartu zuten, aho batez. Jabier Azpitarte alkateak balorazio ona egin zuen, eta datorren urterako komertzio eta produktio lokalaren arteko hartu-eman indartzea helburu izango duela azaldu zuen. ■ M.O.

Moldaketez aparte, ordaindu beharrekoari dagokionez ez dago igoerarik



Durungaldean labor

Berriztik Oizerako Igoerako izen-ematea hasita dago

Azken hamar urteetan egin duten moduan, datorren domekan, urriaren 24an, XI. Berriztik Oizerako Igoera antolatu dute. Ekimen horretarako izen-ematea datorren astelenerdik barikura egin daiteke, Berrizburu kiroldegian. Izen-ematea hiru euro izango da, eta lehenengo 200 lagunek ogitartekoa eta edaria jasoko dute. Batzen den diru guztia Bizkaiko Esklerosi Anitzaren Elkartera bideratuko dute.



Luis Zengotitabengoa kalean dago joan zen eguenetik, fidantzapean

Joan zen asteko eguen gauean heldu zen Luis Zengotitabengoa Elorriora, 30.000 euroko fidantza ordaindu ostean. Portugalen kontrol batean atzemandako furgoneta bategaz lotzen zuten poliziek, eta bera bilatzeko agindua emana zegoen, eta otsailean ihes egin zuen Zengotitabengoa. Abuztuaren 21ean Belgikan atxilotu zuten, eta berak babes politikoa eskatu arren, Espainiaratzea erabaki zuen Brujasko auzitegiak. Belgikatik Madrilera eraman zuten eguenean, eta 30.000 euroko fidantzazaz libre utzi zuen epaileak.

Gazte Asanbladaren urteurrena lurretan

Iurretako Gazte Asanbladaren urteurrena izango dalaster, eta azaroaren 26tik 28ra bitartean zer ekimen prestatu pentsatzeko batzarra deitu dute. Urriaren 20an 19:30ean egingo dute batzar ireki hori, Iurretako IMI-ren lokaletan.

ABADIÑO

'Beldur barik' kanpainan parte hartzera bultzatuz

Emakumeenganako indarkeria gaitzesteko antolatu du Berdinsarea erakundeak lehiaketa

Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako Berdinsarea udal sareak antolatu duen *Beldur barik* lehiaketan parte hartu gura dutenen eskura diru-laguntza ipini du udalak. Emakumeen kontrako biolentzia salatzen duten proiektu artistikoak aurkeztu ditzatela 16 eta 26 urte arteko neska-mutikoez du lehiaketak helburu.

Hamaseititik hogeita sei urtera artekoek lanak aurkeztera bultzatu ditu udalak

Izan bideo, pintura zein ikusentzunezko formatuan, emakumeenganako indarkeriaren gaitzespena adierazten duten lanak dira lehiaketara aurkeztu beharrekoak. Abadiñarrek lehiaketan parte hartu dezaten bultzatzeko, eta lehiaketarako ideiak garatzeko behar dituzten materialak erosten laguntzeko, diru-laguntza eskaini du udalak (gehienez, 200 euro jasoko ditu diru-laguntza eskatzen duen talde bakoitzak); urriaren 29ra egin ahalko dira eskariak.

Azaroko *Beldur barik jaialdian* erakutsiko dituzte lehiaketara bidalitako lanak, eta mila euroko hiru sari banatuko dituzte. ■ I.E.

GARAI

Lodosara bidaiak kulturala datorren astelehenean

Nagusien elkarteak eratuta, Nafarroara bisita egingo du hainbat herritarrek astelehenean

Garaiko San Migel nagusien elkarteak bidaiak kulturala prestatu du astelehen honetarako, eta 25 lagun inguru batuko direla azaldu digute antolatzaileek. Lodosara joango dira, hango gastronomia eta inguruak ezagutzeko asmoz.

Urtero antolatu ohi dute Nafarroa edo Errioxarako irteeraren bat, eta aurreneko lehen aukeraren alde egin dute. Goizeko 09:30ean ipini dute hitzordua Garain, eta hara heldu zean

piperrak produzitzen dituen fabrika bat bisitatuko dute. Gero, inguruko hotel batean bazkaldu, eta arratsaldean hartuko dute etxerako bidea, ibilaldi bat eginda. ■ M.O.

Piperrak produzitzen dituen fabrika bat bisitatuko dute, eta hotel batean bazkaldu

IURRETA

Alokairuak ordaintzeko diru-laguntza gazteentzat

Diru-laguntza jaso ahal izateko azaroaren 12ra arte eman daiteke izena udal bulegoetan



Udalak 250 euro emango dizkio, gehienez, gazte bakoitzari.

Iurretako Udalak bigarren urtez jarraian onartu ditu gazteek 2010. urtean alokairuko etxebizitzak eskuratzeko diru-laguntzak arautzen dituen oinarriak. Udalaren berbetan, diru-laguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren prezioaren %50ekoa izango da, komunitateko eta etxebizitzaren eranskinetako gastuak deskontatuta. Gehienez ere, hilabete bakoitzeko 250 euroko laguntza emango dute.

Etxebizitzaren alokairuaren kostua ezingo da hilean 750 euro baino gehiagokoa izan. Laguntzaren onuradunak 18 eta 35 urte bitarteko gazteak izan behar dira; jabe-

tzako etxebizitzariek da izan behar eta elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonetako batek gutxienez Iurretako udalerrian erroldatuta egon behar du bost urteko etnik bako aintzinasunagaz. Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak ezingo dira 28.000 euro baino gehiagokoa izan. Eskaerak urriaren 12ra arte aurkeztu daitezke. ■ J.G.

Iurretan erroldatuta dauden 18 eta 35 urte bitarteko gazteek jaso dezakete

ZALDIBAR

Tasa biren errolda eginda, ordaintzeko epea hasi da

Gobernu batzarrak tasa biren inguruko erroldak onartu zituen irailan; pasabidea duten ibilgailuak espaloitik sartzegatikoa bata, eta dendetako erroldu eta iragarkien gainekoa bestea. Urriaren 31ra bitarteko epea ipini dute ordaintzeko egiteko. Aurretik, 15 egunean, tasak aurkeztu eta erreklamazioak egiteko aukera izan dute herritarrek. Tasa horiei dagozkien ordainagiriak udal bulegoetan daude, zergapekoek borondatez ordaintzeko bidea izan dezaten. Epe horretan ordaintzen ez dutenei %5eko igoeragaz ordainaraziko zaie tasa. Jakinarazpena egin eta hila-betera oraindik ordaindu barik segituz gero, %20ko igoeragaz eta prozedurak ekarritako kostuak gehituz ordainaraziko zaie tasa.

Udaletik azaldu digutenez, aurreneko tasak ez igotzea erabaki dute, "ez delako momentu ego-kia".

Epe honetan ordaintzen ez dutenei %5eko igoeragaz ordainaraziko diete tasa

Mendi irteera

Bestalde, Zaldia mendi taldeak irteera eratu du zapatu honetarako. Legunbe mendira (1.127 metro) joango dira Zaldibarko mendizaleak, Udaletxeko plaza-tik irtenda, goizeko 07:30ean. Entziako mendilerroan dago Legunbe, Nafarroa eta Arabako mugen artean. ■ M.O.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

BERBAZ >

“Indarkeria bako gizartean gutxiago sufrituko lukete emakume zein gizonek”

Tratu onen aldeko eta indarkeriaren kontrako tailerra dinamizatuko du Miriam Ociok lurretan, urriaren 20tik aurrera

Eguneroko gauza txikien inguruan hausnartzeko aukera eskaini gura du Anderebide elkarteak tratu onen aldeko eta indarkeriaren kontrako tailerrean. Indarkeria matxistari aurre egiteko bidea maitasun hartu-eman osasuntsuak garatzea da, Miriam Ocio tailerreko dinamizatzaillearen ustez. Berekin egon gara urriaren 20an hasi eta azaroaren 24an amaituko den tailerrari buruz berbetan.

Zelakoa izango da tailerra?

Guztion esperientzietatik abiatuta, ibilbide bat egin gura dugu genero indarkeriaren inguruko oinarritzko elementuak lantzeko; gauza txikietatik hilketaraino. Hortik abiatuta, indarkeria horri aurre egiteko emakumeek izan ditzaketan baliabideak ikusiko ditugu.

Emakumeentzako eta gizonentzako tailerra da...

Emakumeen kontrako indarkeria ez da emakumeen arazoa. Gizon eta emakumeen arazoa da, emakumeei eragiten diena, eta hor zerikusizuzena dute bai gizonek bai emakumeek dituzten jokabide matxistek. Emakumeek eta gizonek parte hartzea gura dugu, eta hezitzaileei ere deialdia egin diegu.

“Maitasuna modu positiboan adierazten ikasi behar dugu”

Zer dira, baina, tratu onak?

Baikortasunetik egin gura dugu lan: hartu-emanetan bata bestea zaintzen eta maitasuna modu positiboan adierazten ikasi behar dugu. Horrela eginda, indarkeria egoerak saihestuko ditugu. Jeloskortasunagaz eta kontrolagaz zerikusia daukaten hartu-emanak barik zaintzan eta errespetuan oinarritzen direnak eduki behar ditugu.

Anderebidegaz Juan Orobiogoitia institutuaren ere landu duzue gai hau, ezta?

Iaz hasi ginen, eta aurten ere egingo dugu. Urriaren, astebetez, DBH 2ko ikasleekin genero indarkeriaren gaia lantzea da kontua. Etapa hori garrantzitsua iruditzen zaigu arrisku joerak zeintzuk diren ikusteko; hartu-eman osasuntsua zer ez den eta zer den hausnartzeko aukera eskaini gura dugu.



“Maskulinitatearen gaineko ideiak kolokan jartzen dituzten taldeak sortu dira, baina gaitza da, gizonak ez daudelako horrelako gauzetaz berba egiten ohituta”

Kontrolari buruz berba egiten duzu.

Tratu txar fisikoaren edo hilketaren aurretik, arinago beste etapa batzuk egoten dira, batzuetan ez direnak indarkeria moduan ikusten, baina botere-harreman hori erakusten dutenak: errespetu falta, kontrol ekintzak, irainak, mespretxuak, lagunekin egoten ez uztea... mikro-matxismoa deitzen zaio horri. Ber-

dintasunean asko egin dugu aurrera, baina oraindik matxismoaren aztar-na horiek geratzen dira.

Berdintasuna lantzeko aukera ugari ikusi ditugu azken aldian gurean. Formazioan maila berean daude emakumeak eta gizonak?

Egia da geroago eta ikastaro gehiago dagoela, baina lan asko dago egite-

Miriam Ocio •

Psikologoa

- Genero gaietan lan egiten dihardu azken urteotan
- Gasteiztarra da

ko. Gizonen kasuan, maskulinitatearen atzean dauden balioen gaineko eztabaida geroago eta zabalduagoa da. Pauso garrantzitsua iruditzen zait. Gizonek, jaso duten hezkuntzan, asko galdu dute; afektibitatea adieraztea beti egon da emakumeei lotuta, adibidez. Indarrean eta ez-espresioan oinarritu da euren hez-

“Berdintasuna atzera bueltarik ez daukan mugimendua da”

kuntza. Durangaldean talde batzuk sortu dituzte hausnarketarako, oraindik gutxi badira ere. Gaitza da, gizonak ez daudelako ohituta horrelako gauzetaz berba egitera.

Belaunaldi arteko alderik igarri duzu?

Bai, aldaketak badaude, eta batzuetan, harritu egiten naiz arlo batzutan hain aldaketa gutxi ikusteaz. Nerabearoa, azken finean, segurtasun falta handiagaz bizi dute gazteek, eta batzuetan muturreko kontrol jarrerak ikusi genitzake.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Nik uste dut berdintasunaren aldekoa itzulera bako mugimendua dela. Tratu onak landuta, egoera ez da izango hobea emakumeentzako bakarrik; indarkeria bako gizartean emakumeek eta gizonek gutxiago sufrituko dute. Honen emaitza guztiok hobeto bizitzea da; ez egotea desberdintasunik, izan gizon izan emakume. Gauza txikietatik hasita. Ez da desberdintasunik egon behar nork eman musu bat gehiago nork gutxiago, nork hezi umeak... Bidea maitasun hartu-eman osasuntsuen bilaketan dago. ■ A.Ugalde
Anderebideko telefonoa: 616490506

IRITZIA >

Gutunak

Abadiñoko alkatea promotoreen zerbitzura

Kontua da 2007ko maiatzaren 23an orduan alkate zen PNVko Javier Uriartek hitzarmen bat sinatu zuela FEAR enpresa eraikitzailearekin. (BAO 100 zk. 2007, maiatzak 23. Asteazkena).

Hitzarmen hartan UR-8aren zati handi batek eraikitzerako orduan bete beharreko baldintzak jasotzen ziren, eta hartara lur sail hau birkalifikatu egin zen.

Udalak arau subsidiarioen berrikuspen prozesua zabalik zuen eta birkalifikazio hau arau horietan jasotzen zenaren kontra zihoan.

Obra hau nahi eta nahi ez egin beharra zegoela argudiatzeko, gazteek herrian zuten etxebizitza arazoa jarri zuen mahai gainean alkateak. Etxe merkeak egingo zirela, erosketa prezioa ez zela kasu baten ere diru kopuru batetik gora igoko eta abar (hitzarmenean eta hemerotekan behin eta berriz ikusi daitekeen moduan).

Legealdi berriarekin batera, alkate berria hartu zuen 2007ko maiatzeko hauteskunde ondotik Abadiñoko herriak.

Alkate berriak, Jose Luis Navarrok, proiektu hau "atzera bota ezina zela" bota zigun kargua hartu bezain pronto, nahiz eta bera eta bere taldea, historikoki, proiektu horren kontrakoak izan.

Aurrekari hauek birpasatu eta gero, kontua da, garai hartan bizi izan genuen errealitatea zeharo aldatu dela etxebizitza kontuari dagokionez. Denok jabetu gara hortaz.

Jakina da gaur bizi dugun krisia azken urteotan han eta hemen egindako era honetako UR-8 askoren ondorio dela. Gose inbentarioaren ondorio.

Gure ustez, dekretu honen bidez krisia eragin duten jardun-bideei errepika ahuspoa ematen ari gataizkie. Interes inbentarioa izan dezaketenei bide berriak zabaldu eta hauen interesak babestera eta sustatzera datorren hitzarmena birformulatu du alkateak dekretu bidez.

Hara zergatik diogun:

5.5 estipulazioan 2. paragrafoan zera esaten zuen hitzarmen zaharrak: "gehieneko prezioa delarik 237.400 euro etxebizitza bakoitzeko"; aldatu egin da "gehieneko prezioa da 2.800€/m²-ko" esanez.

5.5 estipulazioan 3. paragrafoan zera esaten zuen hitzarmen zaharrak: "arestian esandako prezioa 95m²ko azalera eraikia (80m² erabilgarri) duen etxebizitza modularrari jartzen zaio"; aldatetaren ondorioz: "promotoreak eskua du, ezarritako mugaren barruan (2.800€/m²-ko) prezio ezberdinak ezartzeko metro karrauko".

Bi estipulazio hauen aldaketak, promotoreari etxebizitza garestiagoak egiteko aukera zabaltzen diote (metro karratu gehiago izango lituzkete, baina garestiagoak izango dira).

Bestalde, hitzarmen zaharraren seigarren atal osoa eta gehigarriak kenduz, aukera ematen zaio beste udalerrri baten jabetza duen edozeini etxe hauek erosteko, lehen ez zegoen aukera hori. Era berean, Abadiñon etxea duen batek hauetako bat erosi eta zaharra saltzeko aukera izango luke; paradoxa ederra, aukera zabalagoa du kanpokoak bertokoak baino: nork kontrolatuko du?

Edozein kasutan, erosle berri hauek etxeak badituzte, eta bigarren bat erosteko aukera zabaltzen diegu, hitzarmena aldatuz.

Gu ez gaude etxe hobetze beharra planteatzen duten familia horiek euren proiektua gauzatzearen kontra. Baina herrian badago hainbat etxebizitza berri salgai, eta hor badago merkatua behar hori asetzeko bezain handia.

Zer perfildun erosleak bilatzen ditu hitzarmenaren aldaketa honek? Nori saldu nahian dabil promotorea etxe berri hauek? Ez

dugu uste gure herriko etxebizitza gazteak direnik erosle potentzial berri horiek.

Kontua da auzo oso baten nondik norakoa baldintzatzen ari garela makroproiektu honekin, eta, hala ere, etxea behar eta ezin dagoen jendea berriro ere kanpoan geldituko dela.

Galdera gehiago ere sortzen zaizkigu:

Udala izan behar da mota honetako etxeak sustatzeko bitartekoak eman behar dizkiona enpresa pribatu bati bere negozioa aurrera eraman dezan? Hitzarmen honek hori egiten du. Erreztasunak eman promotoreari perfil berri hau duten erosleak bilatzeko atea zabalduz.

Beste alternatiba batzuk bilatzen hasi beharko da behingon, ezta? Krisi sakon honetara eraman gaituen formula zaharra alde batera utzi eta lurraren mugagabeko okupazioa alboratzea funtsezkoa da.

VPOak ezin erosi geratu direnei (hipoteka ez dietelako eman, lan gabe daudelako, sarrera ezin dutelako aurreratu momentu honetan...) zer konpontzen die aldaketa honek?

Horiek dira etxebizitza arazoa dutenak. Beste guztia negozioa da.

Behin eta berriro saiatu gara UR-8aren atzean dagoen guztiaren radiografia sakona egiten. Behin eta berriro eskatu dugu neurriak hartu daitezela auzo honek jada badituen arazoak konpontzeko (eskolaren kontua, urarena, osasun sistema eta abar). Baina alkatearen kezka nagusia ez omen da hau. Beste lehentasun batzuk ditu, arestian aipatu ditugunak.

Gure ustez enpresa eraikitzaile batek etxeak saltzeko duen interesa (honi edo besteari, baina saldu) ezin daiteke izan udalaren interesa. Interes publikoak gidatu beharko luke alkatearen lana, eta gogoratu nahi diogu alkateari, era honetako operazio inbentarioek sortu duten krisi sakonaren ondorioz, asko direla VPO etxebizitzei heldu ezinezko diren gazteak. Dekretu aldaketa honek ez die alternatiba ematen gazte hauei; kontrakoa, esango genuke guk.

Etxeak egin eta egin ibili arren, ez dugu eskubide hori bermatzea lortu, ezta lortuko ere. Beste era bateko neurriak hartu behar dira, eta horretan jardun eta jarri beharko luke udalaren dirua eta indarra gobernuak. Ez FEAR enpresaren interesentzat neurrikoa den hitzarmena bilatzen.

Igor Arkarazo, Maite Frades, Ramón Zarrabeitia eta Araitz Basauri
Ezker Abertzaleko zinegotziak

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Carmen Sampedro
EA

Eliza bidea galduta?

Astlehenean gure gotzainaren aurkezpen ofiziala izan zen. Gotzain eta abade asko egon ziren berarekin, baita jende pila bat ere. Baina hau ez da gure elizetan ikusten duguna. Gero eta gehiago, jende gutxiago joaten da mezetara eta elizako gauzetan parte hartzera.

Fededun garenontzat egoera hau oso triste da, eta iretenbide bat aurkitu edo aldaketa batzuk egin behar ditugu.

Gotzainaren aurkezpen ofizialean jende piloia izan zen, baina hori ez da gure elizetan ikusten duguna

Elizako arduradun eta herriko jendeen artean diferentzia geroago eta handiagoa dago, bide ezberdinetatik doazela esango nuke. Elizako "hierarkia" oso kontserbadorea da, eta aurrera joan barik, atzerantz doa. Horrek, jendearen artean desconfiantza sortzen du, eta jendea urruntzen hasten da.

Uste dut denon artean soluzio bat aurkitu behar dugula, bestela, Eliza Katolikoan oso pertsona gutxi geratuko dira. Nire ustez, herriko jendeari gehiago entzun behar zaio, eta Ebanjelioaren "balioak" (Justizia, Solidaritatea, Bakea eta Maitasuna) garrantzitsuena izan behar dira. Gainera, emakumeen presentzia oso inportantea da, eta hori ere kontuan izan behar da.

Aldaketa handia egitea derrigorrezkoa da, baita denok elkartzuta egon eta norabide baten alde lan egitea.

Herriko jendeari gehiago entzun behar zaio, eta Ebanjelioaren balioak izan behar dira garrantzitsuena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko urriaren 15a - 9. urtea - 390 zk.

Laguntzailea: 

Eta honako Udal guztiak:

					
					

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:
Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugaldel.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Bizimodua errazteko

**ASTE BATEAN DOAN
PROBATZEKO AUKERA!**

iROBOT ETXE ASPIRAGAILUA ROOMBA

ROOMBA-531 - 390 euro (bez barne)
ROOMBA 534 PET - 450 euro



**Salmenta eta
zerbitzu
teknikoa**



iMOW BELAR MOZTAILEA

MI 322 C (400m²) - 1.520 euro (bez barne)
MI 555 C (2000m²) - 2.230 euro



JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Oidor Berriozabalbeitia, 14
(Estazio zaharra)

48230 Elorrio

Telefonoa-Faxa: 94 623 18 03

juanberistain@telefonica.net

KULTURA[>]

BERTSOLARITZA > AURKEZPENA

Domekan ekin zioten Bizkaiko Bertsolari Txapelketari Mungian

Ohiana Bartra bilbotarrak batu zuen txapelketaren lehenengo kanporaketa saioan puntu gehien, eta seigarren egin zuen Julen Sololuze ermuarrak Mungian. Urriaren 31n eta azaroaren 7an dituzte Durangaldeko beste bertsolariek saioak.

Julen Sololuze ermuarra izan da Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartzen duten Durangaldeko sei bertsolariatik lehenengoa kantatzen; domekan, Mungiako Olalde aretoan jokatu zen lehenengo saioan, seigarren egin zuen. Oihana Bartra bilbotarrak lortu zuen puntuaziorik altuena, 300 ikusle batu zituen Txapelketako lehenengo kanporaketan.

Plazan alkartuko gara lema ardatz hartuta, joan zen eguenean aurkeztu zuen Bizkaiko Bertsolari Elkarteak herrialdeko txapelketa, lehenengo saioa ere hartu zuen

‘Plazan alkartuko gara’ lemagaz aurkeztu dute Bizkaiko txapelketa

Berrogeitik gora bertsolari, guztira; sei Durangaldekoak

Mungiako Olalde aretoan: lehia bakarrik ez, “eraikuntza konpartitu” bat ere badela udazken-neguhonetan jokatu den Bizkaiko Bertsolari txapelketa adierazi zuten prentsaurrean. Joan zen domekan jokatu zen berrogeitik gora bertsolari bizkaitar batuko dituen txapelketaren lehen saioa.

Garikoitz Arregi graffitigile berriztarrak ere hartu zuen 2010eko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren aurkezpen ekitaldian parte; berak landutakoa den txapelketaren hormairudia margotzen jardun zuen ekitaldian.

Urriko eta azaroko kanporaketa saioetan, Durangaldeko beste bost bertsolarik ere kantatuko dute; udaberriko Durangaldeko Txapelketaren Berrizko finalean txapela jantzi zuen Miren Amuriza eta Gorka Lazkano berriztarrak, Eneko Abasolo “Abarkas” iurretarrak, Beñat Ugartetxea mallabitarrak, eta Eñaut Uruburu abadiñar gazteak.

Durangaldeko bertsolariokin batera txapelketako saioetan Arratia, Bilboaldea, Busturialdea, Enkarterria, Lea-Artibai, Uribe-Butroa eta Uribe Kostako bertsolariek ere kantatuko dute.

Zortzi eskualdetako bertsolariek parte hartuko dute

Azaroaren 21ean, Durangon, finalurreko lehenengo saioa

Azaroaren 7an jokatu duten azken kanporaketara arteko saioei zein azaro eta abenduko finalurrekoetan egindako lanari eta puntuazioei eta txapelketari buruzko informazio guztia www.bizkaiko-txapelketa.biz Interneteko helbidean eskainiko du Bizkaiko Bertsolarien Elkarteak. Durangaldeko bertsolarien jarduna hurretik jarraitu guran, eskualdeko bertsolariek parte hartzen duten saioen gaineko kronikak argitaratuko ditugu Anboto astekarian.



Garikoitz Arregi berriztarra, hormairudia egiten. J.Barrenetxea

Durangaldeko bertsolariak



Beñat Ugartetxea
1979
Mallabia



Eñaut Uruburu
1989
Abadiño



Eneko Abasolo Abarkas
1976
Iurreta



Miren Amuriza
1990
Berriz



Julen Sololuze
1990
Ermua



Gorka Lazkano
1980
Berriz

Abenduaren 18an Barakaldoko BEC erakustazokan jokatu duten finala baino lehenago, urri eta azaroan zehar kanporaketetan lortutako puntuazioaren araberrako sailkapenagaz, azaroaren 21ean eta 28an eta abenduaren 5ean izango dira Bizkaiko Txapelketaren hiru finalurrekoak. Durangoko Landakogunean izango dugu azaroaren 21ean 17:30ean finalurreko lehenenbiziko saioa. Etxahun Lekue, Onintza Enbeita eta kanporaketetan sailkatutako lau bertsolarik jardungo dute. ■ I.E.

Garikoitz Arregi berriztarrak sortu du txapelketaren irudia

Abenduaren 18an, Barakaldoko BECen jokatu da finala

KANPORAKETA SAIOAK

Urriaren 17an, 17:30ean
Balmasedako antzokian
Joseba Artza, Jone Uria, Asier Legarreta, Iñaki Iturriotz, Lander Ibarluzea.
Gaiak: Bernar Mandaluniz

Urriaren 24an, 17:30ean
Aulestiko kiroldegian
Mikel Goiriena, Gorka Ostolaza, Arrate Illaro, Ibon Ajuria, Xabat Gallettebeitia, Peru Vidal.
Gaiak: Leire Bilbao

Urriaren 31n, 17:30ean
Igorreko kiroldegian
Eneko Abasolo, Beñat Vidal, Ortzi Garitano, Peio Ormazabal, Joanes Igerregi, Miren Amuriza.
Gaiak: Leire Aurrekoetxea

Azaroak 7, 17:30ean
Getxoko kiroldegian
Eneko Arrate, Ion Barrocal, Beñat Ugartetxea, Olatz Ibarluzea, Gorka Lazkano, Eñaut Uruburu. Gai-jartzaile: Zuriñe Iarritu

MUSIKA > KONTZERTUAK

Askotariko doinuak gaur, bihar eta etzi Sanfaustoak ixteko

Atom Rhumba, Doctor Deseo, Anari, Violadores del Verso, Sorkun, Dj Makala, KOP...

Urriaren 17an, aurtengo Sanfausto jaietako azkeneko domekarako, jaiei "datorren urtera arte" esateko, iaz *Irlaizan* diskoa kaleratu zuen Anari eta azken hileetan zuzenekoak

Anari eta Sorkunen emanaldiek itxiko dute egitaraua, domekan

akustikoan eskaintzen diharduen Sorkun musikariak gonbidatu dituzte: Pinondon da hitzordua.

Horren aurretik, baina, orain hile batzuk *Cartografia imposible* diskoa aurkeztu zuen Doctor Deseo zuzenean entzuteko aukera ere eskaintzen du jaietako aurtengo egitarauak. Urriaren 16an, zapatuan, 23:00etatik aurrera dira Doctor Deseo eta Powerage taldeen emanaldiak.

Atom Rhumba zuzenean entzuteko aukera, gaur Pinondoko txosnagunean

Anari eta Sorkunek baino lehenago, Pinondoko txosnagunean oholtzatik jardungo dute, gaur, Trastorno taldeko mañariarrek, KOP kataluniarrek eta Atom Rhumba taldeko bilbotarrek. Rock doinu dantzagarriak eskainiko ditu udan disko grabatzen jardun duen Atom Rhumba boskoteak, eta Mañarian sortutako punk doinuak Trastornok. Landakogunean da gaur, bestalde, Violadores del Verso, Rhequiem eta Antidoto hip-hop taldeen emanaldia dugu. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola, San Agustineko programatzailea



Jaietan lana

Ia neskatila nintzenetik, aurtengoa izango da hirugarren urtea Sanfaustoetan beharrik egiten ez dudala. Urte mordo batez taberna izan neban, eta hala, Sanfaustoetan orduak eta orduak lan egin behar izaten nituen...

Horretara, geroago udalarentzat lanean hasi nintzenean, herriko jaietan beharra egitea, niretzako, ez zen gauza arrotza.

Harrezkero, sei urtean zehar, jaien antolaketan jardun dut, eta benetan dinotsuet lan gogorra dela! Aldez aurretik prestaketetarako ordu piloa sartu behar da, koordinatu beharreko detaile txikiak milatik gertu egongo direlakoan nago; hesiak, oholtzak, argindarra... programan azaltzen den ekintza bakoitzak atzetik ekoizpen lan izugarria dauka-eta!

Ehun ekitalditik gora daude egun gutxi batzuetan metatuta, eta denek alde aurreko arreta eta plangintza eskatzen dute; bakoitzak bere neurrian bada be. Karea da jai gune nagusia, eta hala, alde aurretik dena lotuta itzi arren, jakina da inprobisatu beharko dela (bizitza ezin delako alde aurretik programatu!, eta eskerrak!).

Esandakoak esanda, zutabe hau besteok ondo pasatu dezagun jaietan lan egiten duten guztiei eskaini nahi deustset, baina bereziki, lankide ditudan lan-talde teknikoko lagunei, ekintza horrek guztiak ondo irten daitezen lan asko eta lo gutxi egiten dutelako: Katrin, Mainer, Esteban eta Anderri. Ondo pasatu!

ANTZERKIA > EMANALDIAK

Bost urtetik gorako umeendako pentsatutako lana da gaur, 18:00etan hasita, Berrizko Kultur Etxean ikusgai izango dena. Teatro Paraiso taldearen *Txirulari magikoa* antzezlan da Berrizko Kultur Etxeko 2010-2011 ikasturteko bigarren eskaintza. Umeendako antzerkia sortzen hiru hamarkada baino gehiago darama bere lana gaur Berrizen erakutsiko duen Teatro Paraiso talde gasteiztarrek.

tzotasunaren beharra aldarrikatu ere bai. Agintariaren berekikeriaren ondorioz saguz betetzen den hiriko istorio ezagunaren Teatro Paraiso taldearen berrirakurketa honek ere badauka bere amaierako irakaspena.

Antzerkiaren sorrerara
Arte Dramatikoen Madrilgo Eskolan orain hamabost urte sortutako Sexpeare talde gaztearena da urriaren 23an Berrizko Kultur Etxean batzen diren ikusleak antzerkiaren hastapenetara eramango dituen sorkuntza: urriaren 23an, 20:00etan, eskainiko dute *Gracias Grecia*.

Denboran atzera egitea da Sexpeare konpainiak antzezlanen proposatzen duena: antzerkiaren sorrera ezagutzeko Antzina Greziara bidaia egitea. Hiru antzezlek, hogeita hamar pertsonaia gorpuzten dituzte *Gracias Grecia* komedian: antzerkiko klasikoaren parodia egiten dute. ■ I.E.

Umeendako lana da gaur arratsaldeko 'Txirulari magikoa'

Hiru hamarkada baino gehiago umeendako lanak pentsatzen

Umeak, hezkuntza eta antzerkia uztartzen dituen proiektua da Teatro Paraisok jorratzen duena. Kasu honetan, Hamelin hiriko istorio ezagunaren irakurketa edo interpretazio berezia dakarte Teatro Paraiso taldekoek; ipuinaren istorioak berak ez eze, ikuskizunerako sortutako musikak ere badu *Txirulari magikoa* antzezlanean garrantzirik. Hiriko agintarien zintzotasun falta erakusten du obrak, eta zin-

'Gracias Grecia': bidaia antzerkiaren hastapenetara

Urriaren 23an, helduendako komedia Berrizko Kultur Etxean

Ipuin antzeztua umeentzat, eta klasikoaren parodia helduentzat

Barikuroko umeendako antzezlan eskaintzera, Teatro Paraiso gasteiztarrek datoz gaur, 18:00etan, Berrizko Kultur Etxera; Madrilgo Sexpeare konpainia da urriaren 23ko gonbidatua



Urriaren 23an, zapatuan, 20:00etan eskainiko dute 'Gracias Grecia' antzezlan.

MUSIKA > KONTZERTUA



“Kerobia eta gure filosofia ez dira masiboak, baina dituen jarraitzaileak oso leialak dira”

Urriaren 22an eskainiko dute Kerobiako nafarrek Plateruenean zuzeneko emanaldia, eta kontzertuari eta taldearen ‘Ontziak’ lanari buruz egin digu berba Mikel bateria-jotzaileak

Zelakoa izango da Platerueneko datorren barikuko emanaldia?
Oraindik birari hasiera ematen ari gara, baina ondo prestatu dugu, egin ditugunetatik hasiera prestatuena da hau. Trilogiaren amaieraren bira izanda, trilogiaren inguruko itxura eman nahi diogu eszenatokiari, eta Kerobiaren ibilbide guztiko abestiak joko ditugu.

Trilogia ixten duen diskoa kaleratu zenuten uda hasieran. Zer desberdintasun eta antzekotasun dauzka aurreko biekin?
Disko akustikoagoa da, naturalagoa, hainbeste arregio bakoia. Hasiera batean entzuteko zailagoa, baina era berean oso borobila iruditzen zaigu. Trilogiaren hasieran esan genuen azken atalak markatuko zuela bildumaren maila, eta lasai gaude, amaiera aproposa eman diogula uste dugulako.

“Trilogiari amaiera aproposa eman diogula uste dugu; pozik gaude lanagaz”

“Disko honetako letrak aurrekoaren ildo beretik doaz, baina gordinagoak dira”

Zein da azkeneko proiektua gidatzen duen ideia?
Disko honetako letrak esaterako, aurrekoaren ildo beretik doaz, baina gordinagoak dira zelanbait. Hilketez hitz egiten da, biolentzia gordinez, fusilamenduetaz, pozoiaz... Letra borobilak atera dira disko honi forma ematen.

Zer sentsazio sortzen dizue azken kanta horiek entzuteak?
Atal hau kaleratu genuenetik denbora bat pasa ondoren, lasaitu egiten gaitu diskoa entzuteak. Lan ona egin dugula uste dut, eta pozik geratzea zaila izaten bada ere, lasai gaude oraingoan.

Zer asmo duzue datozen hileetarako? Kontzertuak lotu dituzue?
Hainbat kontzertu ditugu hitzartuta, eta era indefinituan zuzenekoak eskaintzeari ekingo diogu.

Diskoak internetez deskargatzeko aukera eskaintzen duzue. Zelako erantzuna jasotzen duzue entzuleengandik?

Trilogiarekin egin genuen apustu hori. SGAEtik atera ginen, gure disketxe zigilu propioa atera genuen eta abar. Oraingoan banaketaz eta managementaz ere gu arduratu gara. Creative Commons lizentziarekin, gure musika Interneten eskegitzea hautatu genuen, bakoitzak egin nahi duen aportazioa egiteko aukera eskainiz. Jende askok aportatu gabe zuzenean deskargatu egiten du; ohitura falta handia dago. Baina aportatzen dutenek, aportazio onak egiten dituzte. Kerobia eta gure filosofia ez da masiboa, baina dituen jarraitzaileak leialak dira oso.

Zelako oroitzapenak dituzue Plateruenean jo duzuenekoak?
Disko guztien aurkezpenak egin ditugu Plateruenean, askotan jo dugu Durangoko kafe antzokian. Leku polita da eta oso gustura aritu gara beti. Gogoan dut, Valentziako 121 dB talde lagunarekin Isburt birako azken kontzertua jo genuen aldia... 2007ko abenduaren 29an izan zen hura... Horren aurretik, baina, Stupenda Jones taldearekin izan ginen urtebete lehenago. Trilogiako atal denak aurkeztu izan ditugu Plateruenean. ■ I.E.

LITERATURA >

‘Trece de octubre’ liburua aurkeztu dute asteon Landakon

Durangaldeko liburudendetan eta Interneteko www.trecedeoctubre.com helbidean gaurtik aurrera eskuragai izango da Manu Moreno kazetariak–Manu Perelu seudonimoagaz– kaleratu duen liburua. Eguazten iluntzean, lagunek inguratuta, Landako elkartegian egin zuten Felix Arkarazo gidari izan zuen liburuaren aurkezpen ekitaldia.

Kazetari durangarrak kaleratu duen lehenengo liburua da *Trece de Octubre*, eta egilea bera jaio zen Durangoko San Fausto auzoan kokaturiko istorioa da liburuan kontatzen duena.

Tentsioa, suspentsea, historia eta abentura dira osagai nagusiak

Landako elkartegian aurkeztu zuten eguaztenean liburua

Tentsioa, suspentsea, historia eta abentura uztartzen dituen istorioa da liburuakoa: laburpenean jasota datorrenez, “unibertso sekreturik handiena, gurez aparteko mundu paraleloen existentzia, deskubritzen duten lau lagun biziaren” dira liburuaren ardatza. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

URRIAK 21 20:00etan
SICK OF IT ALL + MADBALL + ANAL HARD
KONTZERTUA. Sarrera: 20/24euro.

URRIAK 22 22:00etan
KEROBIA + ARIMA SUTAN
KONTZERTUA. Sarrera: 5-8euro.

URRIAK 29 20:00etan
AGURRIK GABEAK MUERTOS Y OLVIDADOS OROIMEN EKITALDIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

HERMANOS DE BAILE
Yilana (Madrid)

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Urriak 23 • 20:00etan

Urriaren 23an, he...
Ber...ko Kultur Etxean

HITZ

Liburu

DANBAKA >

Danbakako kontzertuak astebete berru hasiko dira



Guztia prest dago IV. Danbaka musika lehiaketako lehenengo kontzerturako. Atzo, eguena, Elgetako Espaloia kafe antzokian egindako prentsaurrekoan jakitera eman zuten Danbakan parte hartuko duten hogeitase taldeek noiz joko duten zuzeneko emanaldia.

SARIAK

Autengo edizioan bi sari banatuko dituzte. Alde batetik, Kutxak talde onenaren saria emango du: disko bat grabatzea. Eta, beste aldetik, Mondragon Unibertsitateak Debagoieneko talde onenaren saria emango du: bideoklip bat grabatzea.

Baina kontzertuekin gozatzea joaten diren ikus-entzuleen artean zozketatzeko ere badaude sariak. Lehenengo kontzertuan, ESAITen eskutik, ESAITen materiala zozketatuko dute: zira, txapela eta kamiseta. Bigarren eta laugarren kontzertuetan, Danbakako materiala banatuko dute: kamisetak eta DVDak. Hirugarrenean eta bosgarrenean, Ganesha Tattoo-ren eskutik, tatuaje bonoak zozketatuko dituzte. Eta finalean, berriz, Laino Skate Park-en eskutik, skate materiala eta urtebeteko Laino Skate Parkean doan aritzeko sarrera zozkatuko dituzte.

BABESLEAK
Egueneko prentsaurrekoa babesleekin egin zuten, eta bertan izan

ziren Iker Barandiaran, Danbakako koordinatzailea; Iñaki Altuna, Kutxa Gizarte Marketinoko zuzendaria; Jaione Gartzia, Elgetako Kutxako zuzendaria; Susana Azpilikueta, Mondragon Unibertsitateko komunikazio arduraduna; Gorka Arizmendiarrera, Espaloia kafe antzokiko arduraduna ere.

Danbakako laguntzaile nagusiak Kutxa eta Mondragon Unibertsitatea dira. MUK gazte ekintzaile eta sortzaileengan sinisten duelako laguntzen ei du Danbaka.

Babesle txikiago batzuk ere baditu Danbakak: Gaurko Sein taldea, Ganesha Tattoo, Laino Skate Park, Shot, Gaztelupeko Hotsak eta Elgetako Udala.

Danbaka zabaltzen den beste eskualdeetako herrialdizkariak ere laguntzen dute, hauek dira: Eibarko Eta Kitto!, Elgoibarko

Barren eta Soralezeko Pil-Pilean, Durangaldeko Anboto eta Ermuko Drogeteniturri.

Antolatzaileak, berriz, Goiena eta Elgetako Espaloia kafe antzokia dira. Atrezzo eta Iluminazioaz Jabi Ulla arduratu da.

SARRERAK

Sarrerak erosteko hiru modu daude: Goienako edozein egoitzatan edo Elgetako Espaloian erosi daitezke; bestela, telefonoz ere badauko aukera, 943 25 05 05 telefonoan.

Sarrerak 5 euroan salduko dituzte, baina Gazte Kutxagaz erosiz gero, 3 euro balioko du.

Gainera, kontzertu guztiak, finala barne, ikusteko bono bereziak ere egongo dira. Bono horiek 22 euroan daude salgai. Gazte Kutxagaz erosita, berriz, 12 euroan.

KONTZERTUAK

Urriak 22
Black River (Oñati)
Estiloa: Metal Core melodikoa
Desprezio (Arrasate-Bergara)
Estiloa: Punk-Rocka
Lord Witch (Bergara)
Estiloa: Power Metal eta Heavy Metal melodikoa
La-Tox (Bergara)
Estiloa: Elektronikoa

Azaroak 5
El Trio Calavera (Oñati)
Estiloa: Rumba
Rock Privado (Oñati-Donostia)
Estiloa: Pop-Rocka
Front Malabar (Arrasate)
Estiloa: Rock Powera
Ymotek (Abadiño)
Estiloa: Metala

Azaroak 19
Doctors Klub (Abadiño-Durango)
Estiloa: Rocka
Rombos Negros (Bergara)
Estiloa: Punk-Rocka
Karpovian Project (Mutriku)
Estiloa: Rock-Metal progresiboa
Ez! (Oñati)
Estiloa: Rocka

Azaroak 26
Xarma (Ondarru)
Estiloa: Rocka
Txusters (Eibar)
Estiloa: Rock & Rolla
Seafoid (Eibar)
Estiloa: Folk, Popa eta Rocka
Scam (Aretxabaleta)
Estiloa: Rocka

Abenduak 17
Dark Code (Bergara)
Estiloa: Death Metal melodikoa
Kubers (Sorluze)
Estiloa: Pop-Rocka
Asfiksia (Oñati)
Estiloa: Heavy-Rocka
Industria Dolor (Arrasate)
Estiloa: Musika Industrialia

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



KIROLAK >

“Munduko Kopako lasterketetan maila bat igotzea dut helburu”



Asteburu honetan Munduko Kopako lehenengo proba korrituko du Suitzan, eta hurrengoan bigarrena Txekiar Errepublikan.

Urte bian Egoitz Murgoitio (27 urte, Abadiño) bakarrik korritu du Hirumeten elastikoagaz. Aurtengo ziklo kross denboraldirako hiru txirrindulariko taldea osatu dute: Daniel Ruiz (20 urte, Gernika) eta Xabier Garcia (23 urte, Elorrio) batu zaizkio.

Hirumet ziklo kross taldea aurkeztu duzue. Proiektu berria da, anbiziotsua.

Lehenengo urtean ilusioz beteta gaude. Ilusioa pizten duen proiektua da. Anbizioa ere badu, bai, nazioarteko mailan gehiago ibiliko garelako. Horrek txirrindularien aldetik erantzukizuna ere eskatzen du.

Babesleen aldetik horrelako babesa sentitzeak entrenatzera joateko poza eman behar du.

Bai. Hirumetek egindako apustua ikusita, norberari ere entrenatzeko gogoia pizten zaio. Gainera, neguko entrenamendu busti eta hotzetan ondo etortzen dira ondoan lagunak, eguneko penak kontatzeko bada ere.

Egutegiari dagokionez, aurtengo inoiz baino nazioartekoagoa da.

Ahal ditugun Munduko Kopako lasterketa denak korrituko ditugu. Esperientzia hartzea izango

da helburua, apurka hobetzen joan eta Europa mailako eskakizunetara saltoa emateko.

Zeuren bano gazteagoak diren txirrindulari bi batu dituzue taldera. Gaztetasuna bilatu duzue?

Txirrindulari gazteak izatea gura genuen, eurek ere ikasteko denbora izan dezaten. Normalean, kanpora irten diren txirrindulariak behin adin batera helduta irten dira eta, nire ustez, inportantea da gaztetatik hasia, esperientzia batzen hasteko. Luzarora on egingo die.

Gaztetasunak epe laburrean pazientzia eskatzen du.

Apurka-apurka hazten joan behar dute. Aurtengo inoiz ibili eta lasterketak irabazteko erantzukizun handiena duena ni naiz.

Etorkizuna bai, baina oraina ere badira. Daniel Ruizek iaz denboraldi oso ona osatu zuen.

Txirrindulari gaztea da, eta gauzak ondo egiteko gogo handia dauka. Indar handia dauka eta zirkuituetan oso ondo moldatzen da. Iaz Espainiako Txapelketa irabaztetik gertu geratu zen, eta aurtengo horrek izan behar du bere helburua.

Hirugarrena Xabier Garcia da. Aurtengo du lehen urtea elite mailan. Iaz 23 urtez azpikoan ondo ibili zen, baina aurtengo erantzukizun handiagoa izango du. Munduko Kopako lasterketa batzuk ere korrituko ditu, eta salto hori ematen ahalegintzea izango da bere zeregina.



Egoitz Murgoitio, Xabier Garcia eta Daniel Ruiz Hirumeteko lantaldeagaz batera.

Oraintsu, Belgikan egon zarete lasterketa batzuk korritzen.

Han hilabete lehenago hasten da denboraldia, eta honako prestaketa lanerako balio izan digu. Hangoa beste maila bat da; Stybar munduko txapelketa nagaz eta beste txirrindulari handi batzuekin korritu dugu, eta gure helburua esperientzia eta kilometroak pilatzea izan da.

Zelan aurkitu zara?

Sentazio baikorrak izan ditut. Pare bat lasterketetan arazo mekanikoak izan nituen, baina azkenekoan 24. amaitu nuen eta UCI mailako 50 onenak hantxe zeudela kontuan hartuta, pozik egoteko postua da.

Belgikan emandako 20 egunetan sentsazio baikorrak izan ditut

Asteburuan Valladoliden bigarren amaitu duzu, Javier Ruiz de Larrinagaren atzetik. Elkar ondo ezagutzen duzue.

Azken urte bietan borroka asko izan dugu, eta aurtengo antzekoa gertatuko dela dirudi. Eskatzen hasita, ea hurrengoan emaitza alderantzizkoa den.

Zuk zeuk zer helburu daukazazu?

Estatu eta Euskal Herri mailan lasterketak irabaztea; lasterketak hasi aurretik horrek behar du helburua, gero errepideak ipiniko du bakoitza bere tokian. Nazioarte mailan koska bat igo gura nuke; iaz 23. eta 24. geratu nintzen Treviso eta Igorren. Aurtengo lehen 20en barruan geratzea lortu gura nuke.

Aurtengo helburuak bete barik gera daitekeena Contador da.

Albiste nahiko nahasiak entzun dira; komunikabide bakoitzak gauza bat esaten du. Auzia bere alderako argitzea itxaroten dut, horrela bada txirrindularitzaren onerako ere izango baita. ■ J.D.

Ilusioa pizten duen proiektua da; aurtengo gehiago ibiliko gara nazioartean

Profesional kutsua duen zestako finala jokoaan etzi

San Fausto Zesta Txapelketako finala jokatuko dute domeka goizean; finala jokatuko dutenetako bi Ameriketako profesional izandakoak dira



Aizpurua anaiak erraz gairatu zituzten Noingo Iturbide II.a eta Bailo. Juanra de la Cruz

San Fausto Zesta Txapelketako finala jokatuko dute domekan, 11:30ean hasiko den atariko neurketaren ondoren. Lau gipuzkoarren arteko dema izango da: Carlos Aizpurua eta Ramon Aizpurua andoaindarrek Josu Beitia eta Txomin Ramirez Mutrikuko bikotearen kontra jokatuko dute.

Txapelketa hasi aurretik txapela janzteko faboritoen artean zeuden, eta aurreikuspenak bete dituzte. Ramon Aizpurua Miamin zesta profesionalen ibilitakoa da, eta orain pare bat urte bueltatu zen Euskal Herrira. Bere anaia Carlos, berriz, afizionatuetan munduko txapelketan jokatutakoa da. Aurrekari horiei, anaiak izaki biek ederto elkar hartzen dutela gehituz gero, ez da harrizkoa finalera heldu izana.

Mutrikuko bikotean ere Josu Beitia Ameriketako profesionalki jokatutakoa da. Beraz, lau gipuzkoarren arteko lehiak emozioa iragartzen du.

Partidu orekatua aurreikusten den arren, andoaindarrek izango dira faborito. Finalerdietan nagusitasunez gailendu zitzaizkien Noingo Iturbide II.a eta Bailori (30-20). Aizpurua anaien finalerako pasea ez zen arriskuan egon une batean ere.

Bigarren finalerdian emozioa azken uneraino mantendu zuten lau protagonistek. Aretxa-

Andoaingo bikotea irabazteko faborito da, baina final parekatua izatea itxaroten dute

Durangoko eskolak izan dituen bikote biak Andoianek eta Noainek kanporatu zituzten

baleta eta Ubilla Berriatuko bikote gazteak lan handiak eman zizkieten Beitia eta Ramirez (27-30). Gainera, txapelketako partidurik ikusgarrienetakoa jokatu zuten. Txapelketa jokatuko duten Durangoko bikote biak (Mikel Arrizabalaga-Iñigo Aldekoa eta Egoitz Urrejola-Asier Azkarate) finalerdien atarian geratu dira; Noainek eta Andoainek kanporatu zituzten.

Felix Espillaren agurra
Bestalde, joan zen egueztean Felix Espilla zestalarri berriatuarren omenezko partidua jokatu zuten Durangoko pilotalekuan. Berriatuarrek ezin izan zuten jokatu, aurreko egunean, binakako txapelketako finala jokatzen zebila, lesionatu ondoren.

Hala ere, kantxa erdira irteten eta zaleen txaloak entzun zituen. Master Jaiko lehendakari Aitor Totorikak zilarrezko gurutzea eman zion; 1978an berak jaso zuen gurutze hori munduko txapelketa irabazi ondoren. ■ J.D.

raga. Horretara, Ugeraga gairatu egin du sailkapenean eta zortzigarren kokatu da. Bihar berriro ere etxean jokatuko du sailkapenean bigarren dagoen Balmasedaren aurka.

Sasikoak 4-2 irabazi zion Aretxabaleteri eta horrela azkeneko postutik hamaikagarrenera igo du, puntu kopuruan Aretxabaletera bera berdinduz. Durangarrek ere laugarren jardunaldian lortu dute lehenengo garaipena. Asteburuan Rompiente taldearen kontra jokatuko dute Asturiasen. Ribadesellako taldeak etxean jokatu dituen neurketa biak irabazi ditu. ■ J.D.

Lehenengo garaipenak Berriz eta Sasikoarentzat

Talde biek laugarren jardunaldian lortu dute denboraldiko estreinako garaipena

Sarritan beharra baino akuilu hoberik ez dago. Joan zen asteburuan, denboraldiko lehenengo garaipenak lortu zituzten Berrizek, futboleko ohorezko mailan, eta Sasikoak, areto futboleko ohorezko A mailan.

Berrizek laugarren jardunaldian 4-3 menderatu zuen Uge-

Berrizek berriro etxean jokatuko du bihar; Sasikoak Asturiasera bidaiatuko du

Iker Saenz de la Cuesta
•Areto futbol entrenatzailea



Eraikitzen

Adituarentxokoa

Ezin izan dugu. Azkenean Kurutzia egitea ezin izan du denboraldiari arazo barik aurre egitea ahalbidetuko liokeen emakumezko talderik antolatu. Horrek, hurrengo urteetan ordezkatzeko gaituen taldearen oinarriak eraikitze aurtengo denboraldia erabiltzera kondenatu gaitu. Klubetik ez dugu uste egindako ahalginak hutsalak direnik, eta Durangaldean emakumeen areto futbolaren aldeko apustu sendoa egiten jarraitzen dugu.

Denok dugu areto futboleko klubeko egituretan dagoen problematikaren berri (Kulturalaren emakumeen taldean salbu, futbol klubaren babes zuelako, zeinaren babes hori eskaintzeko interesaren arrazoirik oraindik ez dakidan), horrelako proiektuetan jende gutxi inplikatzeko delako, babesle garrantzitsuak falta direlako edo federazioek eskakizun handiak jartzen dituztelako. Hala ere, Kurutzia proiektu bat abiatu dugu, zeinaren helburua gizonen eta emakumeen taldeak bermatzea eta formaziorako taldeak sortzea den.

Hori guztia lortzeko, Kurutzia beste klub batzuekin edo ikastetxeekin lanean hasi nahi dugu; Durangon areto futboleko klub sendoa bilatuko lukete akordioek, etengabeko hazkunderaren aldeko apustua eskainiko lukeen taldea, eta klubaren biziraupena bermatuko lukeena.

Beraz, emakumeen taldeak ez du agurrik egin, "gero arte" esan digu, zeren eta titularrean diogun legez, emakumeen taldea eraikitzen ari da, eta berriro kantxan ikusteko nahiagaz lanean jarraituko duenik badago.

Trinkete txapelketako finalak gaur eta bihar

Gaur openeko finala jokatuko dute Uriarte eta Antxiak, Waltary eta Ugarteren aurka



Ander Antxia abadiñarrak Rober Uriartegaz osatuko du bikotea.

Durangoko Amankomunazgoak antolatutako openeko finala jokatuko dute, gaur 20:00etan, Rober Uriartek eta Ander Antxiak Waltary eta Ugarteren aurka.

Bestalde, bihar Munduko Pilota Batzarrak antolatutako Nazioarteko II. Trinkete Txapelketako irabazleak ebatziko dituzte. Modalitate guztietako finalak 16:30etik aurrera hasiko dira. Gizonen paleta goman eta larrusko paletan Argentina

eta Uruguay leihatuko dira. Emakumeen paleta goman Euskal Selekzioak Argentinaren kontra jokatuko du. Itsaso Pradera mallabiarra ibiliko da txapelaren bila.

Bereikua Cafés Baquén
Bestalde, XXV. Cafés Baquén pilota txapelketa aurrera doa eta Bereikua iurretan gaztea bikain dabil. Behe-behetik hasi da eta hurrengo partidua irabazita finalerdietan legoko. ■ J.D.

Kulturala da hirugarren mailan oraindik galdu ez duen bakarria

Amorebieta liderrak Zarautzen kontra amore eman ondoren, Durangoko Kulturalak bakarrik jarraitzen du oraindik hirugarren mailan porrotik ezagutu barik



Etxeko azkeneko lehian 2-0 menderatu zuten Santutxu. K.A.

Durangoko Kulturalak ez beste talde guztiek, gutxienez behin amore eman dute liga hasi denetik. Joan zen asteburuko zazpigarren jardunaldian, ordura arteko puntu guztiak batuta zituen Amorebietak galdu egin zuen Zarautzera egindako bisitan (1-0), menderatu bakoen zerrenda Kulturalera bakarrik mugatuz.

Axier Intxaurrearen gizonak 1-2 irabazi zuten Gernikaren zelaian. Lehenengo zatian partidua ederto bideratu zuten, gol bi sartuta. Bigarrenean Gernikak markagailua estutu arren, "ez gintuzten gehiegi estutu", Intxaurrearen esanetan.

Iker Martinez inspiratuta dabil; zazpi partidutan bost gol sartu ditu

Horrela, Kulturalak etxetik kanpora hirugarren garaipena eskuratu zuen; aurretik Baskonia eta Sestao Riverren zelaian hiru puntuak batuak zituen. Amurrioren zelaian hutsean berdindu zuen. Etxean Santurtzi eta Santutxu menderatu ditu, eta Leioa izan da puntu bat eroatea lortu duen bakarria.

Aurrean iaz bezain golegile jarraitzen du Durangoko taldeak.

Baina bada jokalaria bat bereziki inspiratuta dabilena: Iker Martinez; zazpi partidutan bost gol sartu ditu, taldeak sartutako (14 gol) herena baino gehiago. Aurten Laudiotik ekarri duten 26 urteko jokalaria zorte barik ibili da aspaldian, baina bere kalitatearen jakitun, sasoi batean Elgoibarren eskaintako maila berreskuratu guran fitxatu zuten, eta, oraingoz, beragan ipinitako konfiantzari golekina erantzun die elgoibartarrak.

Bihar Zalla hartuko dute etxean. Saiklapenean beheko postuetan dabil, baina Intxaurrea ez da fidatzen. Badaki kalitate handiko jokalaria dugu, eta denboraldian zehar gora egingo duela pentsatzen du.

Muniozguren sendatuta Lesionatuta egon den Muniozguren jokalaria erreperatu da, eta jokatzeko moduan dago. Jon Conde bakarrik dago lesionatuta. Bat ere zorterik ez du mutilak. Denboraldiaurrean hankako odol-hodi bat apurtu zuen. Orain hilabete makuluak alboratu eta bizikletan hasi zen, baina lesio berriro gaiztotu zitzaion. Hile birako baja dauka oraindik. ■

Jon Conderi lesioa berriro gaiztotu eta hile birako baja izango da

Derbi bigaz hasiko da hirugarren erregionala

Asteburuan ekingo diote oraindik hasi barik dagoen futbol liga bakarrari. Hirugarren erregionala Durangaldeko talde biren arteko derbiak dakartza lehen jardunaldian. Ezkurdik eta Berriz B-k gaur iluntzean jokatu dute Berrizburun. Domekan, Extremeño eta Elorrio B neurtu-

ko dira Tabiran. Horiez gainera, beste derbi bi ere jokatu dituzte areto futbolearen eta lehenengo erregionalean. Batean, Abadiño talde biak neurtuko dira Berrizko kiroldegian. Beste, Dantxari Sapuberri talde sortu berriaren kontra jokatu du, lurretan. ■ J.D.

Eskalada bideoen emanaldiak Berrizen

Berrizko Amaraune eskalada taldeak eskaladaren gaineko bideo emanaldiak prestatu ditu. Hiru bideo eskainiko dituzte urriaren 21ean, 19:00etatik aurrera, Berrizko Kultur Etxean.

Lehenengoan, *Martxan II* izenekoan, Berrizko eskalada taldeko kideak ikusi ahal dira haitzean gora. Bigarren bideoan, *The dream* izenekoan, hainbat durangar Yosemiteko horma handietan gora ikusi daitezke.

Passion des Cimes izeneko hirugarrenean, Catherine Destivelle eskalatzaile frantziarrak (Aljerian jaio zen) Alpeetako hormak zelan menderatzen dituen ikusi daitezke. ■ J.D.

Berrizko eta Durangoko eskalatzaileen igoerak erakutsiko dituzte

Pitch&Putt txapelketa Bizkaiko lau zelaietan

DimaGolf, Meaztegi, Derio eta Urgoitiko zelaietan jokatu dituzte lau jardunaldiak

Bizkaiko lau Pitch&Putt zelaiek modalitate horretako (scratch eta stableford) taldekako lehenengo txapelketa antolatu dute urritik abendura bitartean. Lehenengo jardunaldia domeka honetan izango da Dima-

dute txapelketaren bigarren aldia. Modalitate bakoitzeko garaikurra zelaiaren jabetzako izango da hiru bider irabazten dutenean.

San Fausto Txapelketa Bestalde, DimaGolfen San Fausto Txapelketa jokatu dute oraintsu, Pitch&Putt modalitatean; Gorka Ecenarrok irabazi zuen mailarik gorenean; Juan Carlos Martínezek bigarren mailan, eta Ruben Martínezek hirugarrenean. Txapelketa bat amaitu eta beste bat jokatu dute laster. Hain zuzen ere, DimaGolf zelaiko hurrengo txapelketa datorren azaroaren 6an jokatu dute. ■ J.D.

Txapelketa domeka honetan hasiko da DimaGolf zelaian

Golf zelaian; bigarrena azaroaren 7an Meaztegin; hirugarrena azaroaren 28an Derion, eta azkena abenduaren 18an Urgoitin.

Zelai bakoitzeko talde bik parte hartuko dute txapelketan. Modalitate bakoitzeko garaikurra irabazi duen taldearen zelaian egongo da hurrengo urtera arte. Datorren urteko azken hiru hileetan jokatu

Irabazleek garaikurra gordeko dute euren klubean, urtebetez

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Zalla
 Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
OHOREZKO MAILA
Berriz - Balmaseda
 Zapatuan, 17:30ean, Berrizburun
GOREN MAILA
Elorrio - Moraza
 Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden
LEHENENGO ERREGIONALA (mutilak)
Zaldia - Ermua
 Zapatuan, 18:30ean, Solobarrian
LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)
Iurretako - Ugao
 Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain
HIRUGARREN ERREGIONALA
Zaldia B - Lekeltio B
 Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian
Berriz B - Ezkurdi
 Barikuan, 19:30ean, Berrizburun
Extremeño - Elorrio B
 Domekan, 17:00etan, Tabiran

ARETO FUTBOLA NAZIONAL B MAILA
Elorrioko Buskantza - Orioko
 Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian
EUSKAL LIGA
Kurutziaga Ikastola - Arabako EHU
 Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian
Sasikoa Durango - Kukulaga Etxebarri
 Zapatuan, 19:30etan, Landako kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
Mendibeltz - Mazuberri
 Zapatuan, 16:10etan, Landako kiroldegian
Abadiño Lagun - Abadiño Gaztetxe
 Barikuan, 19:45ean, Berrizburun
Dantxari - Sapuberri
 Zapatuan, 19:00etan, Lanbide Heziketa Institutuan

SASKIBALOIA
EBA MAILA
Tabirako Baqué - Torrelavega
 Zapatuan, 19:30etan, Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONAL BEREZIA (gizonak)
Tabirako Baqué - Leioa
 Zapatuan, 16:30etan, Landako kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)
Tabirako Baqué - Leioa
 Barikuan, 20:15ean, Jesuitak ikastetxean

PILOTA
XXVII. SAN FAUSTO ZESTA TXAPELKETA (finala)
Carlos Aizpurua-Ramon Aizpurua / Josu Beitia-Txomin Beitia
 Domekan, 11:30etan, (atarikoaren ondoren)
 Durangoko Ezkurdi Jai Alain XXVIII. OLAZAR TXAPELKETA
Lau t'erdian
Urlona-Bilbao
Binaka
Muguruza-Jauregi / Yoldi-Linzoain
 Urriaren 21ean, 21:30etan, Zaldibarko pilotalekuan
CAFÉS BAQUÉ
- Pradera - Ibarondo
- Arrizabalaga-Gonzalez
- Ansotegi-Irusta
- Gonzalez-Larunbe
 Urriaren 20an, 19:00etan, Mañariko pilotalekuan

AMALURRA[>]

URBIOIA



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Urteetan handitzen dabil iparraldearen zor ekologikoa

Gure kontsumorako ohiturek eta multinazionalen herrialde txirotuetan kalte ekologikoak eragiten dituzte

Iparraldeko herriek historian zehar hegoaldean egindako jarduerengatik ordaintzeko zor bat daukate

Indigenei urteetan eragindako kalte ekologiko, kultural eta ekonomikoa ordaintzeko eskatzen du hainbat gizarte mugimenduk

Herialde txirotuetan bizi duten egoera, besteak beste, zorpetuta bizi direlako bizi dute. Kanpo zorra edo zor ekonomikoa horren aurrean, 'zor ekologikoa' izeneko kontzeptua zabaltzen dabilta gizarte mugimenduak. Zorpetuak iparraldeko herriak direla aldarrikatzen dute, bertako bizitzeko ohiturek eta kontsumo erritmoak kalteak sortu dituztelako kanpo zorra duten herri horietan.

XX. mende amaieratik hona zabaldu den kontzeptua da zor ekologikoa. Ekologistak Martxan elkarteak egindako kanpainak, hainbat alor aipatzen ditu zor hori zertan datzan hobeto ulertzeko.

Karbonoa

Kyotoko protokoloa dela-eta, karbono emisioak mugatzeko

lana hasi zen, baina ez dira aurreikuspenak bete. Kyotok lehen "emisio baimenak" deitutakoak, orain "emisio eskubideak" deitzen dira, eta ezarritako mugak gainditzen gabiltza.

Energia iturriak

Hirugarren mundua deitutako horretatik erregai fosilak ekartzean, hemengo enpresek ez dute modu justu batean ordaintzen. Merkeagoa da erregaiak hegoaldean ustiatzea iparraldean egitea baino. Norvegiar, adibidez, gasa ateratzeagatik % 90 ordaintzen bada, herrialde indigena baten petrolio ateratzeagatik % 12.

Ezagutzak

Herialde indigenetan osasunaren eta elikaduraren inguruko kultura oso garatuta dago. Gure

inguruko enpresa farmazeutiko eta elikadura enpresek hango ezagutzak hartu eta, aldaketa genetikoak egin eta gero, saldu egiten dizkiete. Ezagutza publikoa pribatizatu gura dutela salatzen dute gizarte mugimenduak.

Hondakin toxikoen trafikoa

Barku zaharrak, adibidez, Bonbayn, Mauritianian... abandonatzen dituzte enpresek. Toxizitatea pilatzen da eta leku horietako biodibertsitateak kalte larriak izaten ditu.

Ingurugiroko beste kalteak

Amazonian, adibidez, enpresa multinazionalen jarduerekin ibaiak kutsatzen dira, eta horietatik edaten duten indigenek, bainua hartzen dutenek... eurentzat ezezagunak diren gaixotasunak hartzen dituzte. ■ A.U.

**AUKERAZKO
IBILGAILUAREN
JATORRIA EZAGUTZEA
OSO GARRANTZITSUA
DA. GAURSAN
GUZTIA KONTATZEN
DIZUGU.**

*Andoni
esana*

facebook

Andoni Baños,
Gausako Aukerazko Ibilgailuen salmenta arduraduna.



**RENAULT MÉGANE
SPORT TOURER**

1.5 dCi 105cv
(2009)

15.950€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP transferentzi gastuak barne 2010/10/31-arte edo izakinen amaierararte baliozko eskaintza.



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA.

GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gausaautoak.com

BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO. www.bilboberri.com.

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Saldu / Erosi
Errentan eman / Errentan hartu
Lan eskariak / Lan eskaintzak
Galdut / Aurkitu
Eman / Hartu

Eguazteneko 19:00ak arte
jasotako iragarkiak bariku
horretako alean
argitaratuko ditugu.
Beranduago jasotakoak
hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org.

Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23

Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabilzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trasteleku eta ganbara. Eguzkitsua eta 3 balkoi ditu. Igogailua jartzekotan dira. Berogailua eta leiho berriak. Etxe guztiak kanpora ematen du. Telefonoa: 655 712 105

Abadiño. Pisu salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziatzeko moduko prezioa. Tel.: 667 882 338.

Berriz. Pisu salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. Tel.: 647 777 392

Durango. 98 m²ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukalde-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 eta 8 m²-koak) eta baita terraza komunitario ere. Altzariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren baldar jarri berria, lau armairu enpotratu, aluminiozko leihoak, atek eta zorua aldatuta. Garajea eta igerilekuarekin. 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m². Kanpoaldera begira. Altzariz hornitua. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztua. Kanpoitxi (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa, sukaldea, gres, berokuntza, kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. 223.000 euro. Telefonoa: 607 715 353

Durango. Atiko zoragarria salgai Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! 659 425 890

Durango. Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Jantzita eta erreformatua. 189.319 euro. 699 409 959

Durango. Etxebizitza salgai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m²-ko terrazarekin. 220.000 euro. 17:00etatik aurrera deitu: 696 255 083.

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Berritua, 124 m², gas naturala, berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Prezioa: 264.500 euro. 685 734 825

Elorrio. Pisu eder bat salgai, Auzoa auzoan. Leku zoragarria. Tel.: 639 020 581

Garai. Oar-Erdikoa baserria, Garaiko San Migel auzoan. Udaletxetik 150 metrora. Hegoaldera begira. 300 m²-ko solairua. 10.000 m²-ko lur-saila. Nekazaritza edo landa-etxerako oso egokia. Erreformatzeko. Proiektua aurkeztuz gero, etxebizitza 2 egiteko aukera 639 833 489

Iurreta. Pisu saltzen da Maspe kalean. 3 logela, sala, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztatua. Igogailuarekin. Telefonoa: 653 011 897 edo 648 102 025

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu: 655 702 647

Mañaria. Pisu salgai. 90 m², hiru logela, bi komun, egongela-jangela eta sukalde guztiz jantzia. Altzariz hornitua. Miradorea eta bista ikusgarriak. 13 m²-ko trasteleku. Eraikinak 15 urte ditu, eta igogailua du. Bizitzera sartzeko. Prezioa: 220.000 euro (36.520.000 pezeta). Aukera oso ona! Tel.: 646 675 051

ERRENTAN EMAN

Berriz. 90 m²-ko eta 3 logelako pisu errentan eman nahi dut. 3 logela, 90 m², igogailua eta garajea. Errenta: 600 euro. Telefonoa: 94 682 00 41

Berriz. Pisu bat errentan eman nahi dut. 3 logela, 90 m², igogailua eta garajea. Errenta: 600 euro. Telefonoa: 94 682 00 41

Durango. Durangoko tabira auzoan pisu konpartituan logela alokagai. 250 euro. Harremanetan jartzeko posta elektronikoa erabili: miripz@yahoo.es

Durango. Pisu errentan durangon. 4 logela, egongela eta sukaldea. 5. Pisu igogailuarekin. Tel.: 657 795 495

Zaldibar. Logela bat alokagai. Tel.: 655 739 792

Zaldibar. Apartamentu bat alokagai. Guztiz jantzia, egoera onean eta herriaren erdigunean. Bikote batentzako aproposa. 20:00etatik aurrera deitu: 94 682 73 69

ERRENTAN HARTU

Berriz. Berrizen edo inguruan pisua alokatu nahi genukeen bikote bat gara. Deitu: 669 956 450

Durango. Durangon 1-2 logelako pisua alokatu beharra dugu. Olatz 627 470 544

Durango. Pisu konpartituko nuke beste pertsona batzuekin Durangon. Telefonoa: 666 202 273

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

SALDU

Laredo (Kantabria). Izugarrizko bistak dituen pisua

salgai Laredon hondartza ondoan. Urbanizazio pribatuan, berdegune askorekin, haurerentzako jolasguneak, tenis zelaia, saskibalo zelaia, autoa garbitzekoa... Puntaleko zonaldean. Hall zabal, egongela eta jangela zabalak, bi bainugela osatu, 4 logela bakoitza bere armairuarekin, sukaldea, elektrogailu berriein osatu, ur beroa eta gas naturalarekin dabilen berogailua. 2 igogailu eta atezain zerbitzua. Ezin hobeto dago bizitzera sartzeko. Partikulara. 690 07 15 72.

PISUA KONPARTITU

PISU BILA

Madril (Madril). Logela bila nabil Madrilen, Atocha inguruan. Tel.: 600 330 110

PISUKIDE BILA

Durango. Durangon pisua konpartitzeko pertsona bat behar da. Tel.: 658 724 510

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Lokal ekipatua, altzariekin alokagai Matiena eta Durango bitarteko errepidean. 120 m². Deitu 619790053 telefonora.

Atxondo. Apatan 40 m² lokala alokagai. Komuna ipinita dauka. 686 13 71 23

GARAJE/ TRASTEROAK

SALDU

Elorrio. Garajea salgai Berritoxoa kalean. 658 759 264

Teknologia

INFORMATIKA/BIDEO-JOKUAK

SALDU

iPod bat salgai. 8 GB-ko iPod Touch berria salgai 100 eurotan. Tel.: 636 170 508

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen dodaz. Ordenagailu konpontzen dodaz. Etxez etxe joaten naz konpontzen. Hardwarea eta softwarea. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini, etab... Arin eta merke! Tel.: 650172285

Lana/negoziako LAN ESKARIAK

ETXEO LANAK

Zaldibar. Neska garbiketa lanetan edo dendetan lan egiteko prest. Kotxea dut: telefonoa: 659 973 224

PERTSONAK ZAINDU

Abadiño. Lan bila nabilen Matienako andre bat naiz. Edozein ordutegian, arratsaldez eta gauez aukeran. Urme eta nagusien zainketa, etxeen garbiketa... 696 753 530

Berriz. Andre euskaldun bat 3 edo 4 orduz umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko

prest. Telefonoa: 680 509 532 edo 94 622 57 24.

Durango. Andre euskalduna pertsona nagusiak, gaixok, ezinduek... zaintzeko prest. Urte askotako esperientzia eta lehenbailehen hasteko prest. Interesatuak deitu 699 745 723 telefonora.

Durango. Emakume arduratsu bat prest orduka umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzeko lanak egiteko. Juana. Tel.: 670 674 641.

Durango. Neska euskalduna eta esperientziaduna astelenehenetik ostegunera, ordubate inguruz, haur txikiak zaindu edo 6 eta 10 urte bitarteko haurrei edozein gaitako eskola partikularrek emateko prest. 630 86 69 74 Miren.

Durango. Durangon edo inguruetan, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanetarako ere. Arratsaldetan, gauean eta asteburuetan. Erreferentzia onak. Tel.: 650 610 194.

Durango. Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lan baten bila nabil. Lanaldi osoak edo erdirako. Erreferentzia onak. Telefonoa: 638 437 901.

Durango. Neska euskalduna, astelenehenetik ostiralera, arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako irakaslea, gaur egun goizez irakaste moduan lan egiten dut. Deitu: 635 706 986

Elorrio. Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan edo orduka (astelenehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest, baita lehen hezkuntzarako klase partikularrek emateko prest. Haur hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda, eta gaur egun hezkuntza bereziko ikasketak egiten. Deitu: 688 640 604 (arratsaldez).

Elorrio. Neska euskalduna astelenehenetik ostiralera bitartean, arratsaldetan, pertsona edadedunak paseatzera ateratzeko prest. Interesa baduzu: 688 654 291 (arratsaldez)

Elorrio. Neska gazte bat arratsaldez haurrak zaintzeko prest, baita haurren etxeko lanez arduratzeko. Harremanetan jartzeko: 600 361 381.

Iurreta. 27 urteko neska euskalduna, iurretarra, astelenehenetik ostiralera goizeko 07:00etatik arratsaldeko 16:00etara lan egiteko prest. Umeekin, ezinduekin psikikoekin eta adinekoekin esperientziaduna. Gizarte eta kultur animazioa ikasia. Neure kotxea daukat. Tel.: 690 996 618

Zaldibar. Neska euskalduna umeak zaintzeko edo/eta partikularrek emateko eskaintzen da, lehenengo hezkuntzatik DBHra arte; 3 urtetako esperientzia daukat. Harremanetarako: 610 00 44 43.

IRAKASKUNTZA

Abadiño. Fisikako ikaslea durangaldean klase partikularrek emateko prest. LH, DBH edota batxilergokoak. Esperientziaduna. 645 720 236

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikaslea euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. Telefonoa: 635 74 61 76

Durango. Heziketa bereziko eta psikopedagogiako ikasleak dituen 23 urteko neska euskalduna, lehen hezkuntzan klase partikularrek emateko prest. Tel.: 615 731 881

Durango. Ingeles maila hobetu nahi? Ingeles irakaslea partikularrek emateko prest. Telefonoa: 625 709 846

Durango. Inguru ikasgaia ingelesez (LH eta DBH mailak) ikasi nahi baduzu, deitu. Ingelesa irakasten dut. Telefono zenbakia: 625 709 846.

Elorrio. Helduentzako euskara klaseak ematen ditut, azterketak prestatzeko. Telefonoa: 675 706 105

Elorrio. Elorrioren klase partikularrek ematen ditut. Deitu: 675 70 61 05.

GAINERAKOAK

Durango. Jardinen mantenuan, eraikuntzan, margolarigisa, tornuetan edo elektrizitatean oinarritutako lan baten bila nabil. Paperekin. Telefonoa: 669 594 376

Zaldibar. Gazte euskalduna naiz, eta lan bila nabil. Informatikako goi-ikasketak ditut. Zaldibar edo inguruetan lan egiteko prest. 679 948 923.

Zaldibar. Neska euskaldun bat lan bila dabil, garbiketarako, portaletan, dendetan edo lantegietan. Autoa eta gidabaimena. Zerbitzari moduan ere lan egin dezaket. Tel.: 659 973 224 (izaskun).

LAN ESKAITZAK

OSTALARITZA

Durangaldea. Kamarera euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. Telefonoa: 689 80 23 62.

ETXEO LANAK

Durango. Andre euskaldun bat behar dugu gure umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi ordu egunean. Telefonoa: 605 825 026

Durango. Durangaldeko herrirei zuzenduriko lan eskaintza. Iniziatiba eta lagun arteko dohaina duen pertsona bazara eta hileko soldata plus bat nahi baduzu, hona hemen aukera ezin hobea. Zure etxetik eta zuk nahi duzun ordutegira egokituriko lanpostu komertziala eskaintzen dugu. Saltzen duzun produktu bakoitzeko komisio finko eta ziurratekin. Produktu berri-

tzaile eta erakargarria salmentarako. Beharrezkoa: ordengailu portatila produktaren aurkezpenetarako eta norbere autoa. 943 10 72 00

